

opusdei.org

Saxum Visitor Center

Lurralde Santuen sarrerako atea

2019 Mar 11

Hiru urtetan lan egin ondoren, Lurralde Santuetan ireki da Saxum Visitor Center, erromesei historia biblikoa eta harekin harremanetan dauden lekuak ulertzera laguntzen diena.

Joan den ostegunean, otsailak 7, 2019, *Saxum Visitor Center Lurralde Santuan* ofizialki ireki zen. *Visitor*

Center multimedia zentro berri bat da Lurralde Santuei buruzkoa, Jerusalemgo kanpoaldean kokatua, Abu Gosh-en.

Yariv Levin, Israelgo Turismo ministroa eta Mons. Giacinto Marcuzzo, Jerusalemgo gotzain laguntzailea presente egon ziren, hala nola 130 parte hartzaile gutxi gora behera. “Egia esan, uste dut zentro honek baduela mundu guztiko turistak eta erromesak erakartzeko indarra, historiari buruz modu esanguratsuz ikasi nahi dutenak”.

Marcuzzoren esanez “zentro honek joan den denboraren historia presente bihurtzen du. Hona heltzen diren erromesek, gure egunetakoak, mende honetakoak, Jainkoaren eta garai hartako gizakien artean eman ziren misterioen esperientzia bizi behar dute”.

Saxum Visitor Center-ek
salbamenaren historia eta Lurralde
Santuen errazago eta modu
modernoago batean ulertaraziko
diela turista eta erromesei itxaroten
du. Denbora linea bat eskaintzen du,
giza zibilizazioaren eta Itun
Zaharraren datak elkartzen dituen;
harrizko mapa handi bat Abraham
eta Moisesen bidaiekin; Jerusalem
eta Leku Santuen ukimen-pantailak
eta 4D proiektzioak.

Lurralde Santuetan ikusi eta ikasi
duten guztiaren irudi mental bat
buruan sorraraztea turistei era
erromesei du helburutzat, etxera
heltzen direnerako.

Saxum Visitor Center mundu osoan
Opus Dei Prelaturako kide eta
laguntzaile direnek sustatu dute.

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/saxum-visitor-center/](https://opusdei.org/eu-es/article/saxum-visitor-center/) (2026
Mar 10)